



**BISCAYTIK PROIEKTUAREKIKO ATXIKIMENDURAKO HITZARMEN
MARKOA GARATZEN DUTEN HITZARMEN BEREZIAK, ERREGISTRO
ELEKTRONIKOARI BURUZKOAK**

**ESTIPULACIONES PARTICULARES EN DESARROLLO DEL CONVENIO
MARCO DE ADHESIÓN AL PROYECTO BISCAYTIK, EN MATERIA DE
REGISTRO ELECTRÓNICO.**

ALDERDIAK

I. Alde batetik, FUNDACIÓN BISCAYTIK - BISCAYTIK FUNDAZIOA (hemendik aurrera, "BiscayTIK Fundazioa"), egoitza Bilboko Kale Nagusiko 25 zenbakian duena, Bizkaiko Foru Aldundi Txit Gorenak 2008ko abenduaren 22an Bilboko Notario den Raquel Ruiz Torres andrearen aurrean eskritura bidez sortutakoa, notarioaren protokoloan 437 zenbakia daramana, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan F-236 zenbakia duena eta I.F.K. zenbakia G-95555850 duena.

Ibon Oñate Zamalloa jaunak ordezkatzeko du, adinez nagusia, helburu horretarako egoitza Leioan (Bizkaia) izanik, Landabarri Pasealekuko 2. zenbakian, N.A.N. zenbakia 45.620.538-S duena eta BiscayTIK Fundazioko Zuzendari Gerente bezala jarduten ari dena, 2009ko otsailaren 3an aipatutako Fundazioko Patronatuaren erabaki bidez izendatutakoa eta 2009ko otsailaren 13an Bilboko Notario den José Antonio Isusi Ezcurdia jaunak bere protokoloaren 700 zenbakian egiaztatu zuena.

II. Beste aldetik, Berango Udalak (hemendik aurrera, "Udala").

M^a ISABEL LANDA GAUBEKA jaun/andreak ordezkatzeko du, adinez nagusia, N.A.N. zenbakia 16035617-V duena eta Alkate bezala jarduten ari dena.

Hemendik aurrera, hitzarmen honetan "Alderdi" BiscayTIK Fundazioa edo Udala izan daitezke, testuaren zentzuaren arabera kasu bakoitzean, eta "Alderdiak" terminoak BiscayTIK Fundazioari eta Udalari batera egingo die erreferentzia.

ADIERAZTEN DUTE

I. BiscayTIK Fundazioak eta Udalak sinatutako ekintza eta hitzarmenen esparruan, sinatutako BiscayTIK Proiektuarekiko Atxikimendurako Hitzarmen Markoaren sinadurak ziurtatzen duen bezala, udal esparruan informazioaren gizartearen hedapena sustatzen duten ekintzak garatu dira, eta

LAS PARTES

I. De una parte, la FUNDACIÓN BISCAYTIK - BISCAYTIK FUNDAZIOA (en adelante, la "Fundación BiscayTIK"), con domicilio fundacional en Bilbao, calle Gran Vía 25, constituida por la Excm. Diputación Foral de Bizkaia - Bizkaiko Foru Aldundia mediante escritura otorgada el día 22 de diciembre de 2008 ante la Notaria de Bilbao, D.^a Raquel Ruiz Torres, bajo el número 437 de orden de su protocolo, inscrita en el Registro de Fundaciones del País Vasco bajo el número de registro F-236, y con C.I.F. número G-95555850.

Se halla representada por D. Ibon Oñate Zamalloa, mayor de edad, con domicilio a estos efectos en Leioa (Bizkaia), Paseo Landabarri 2, con D.N.I. número 45.620.538-S, quien actúa en su condición de Director Gerente de la Fundación BiscayTIK, nombrado por acuerdo del Patronato de dicha Fundación de fecha 3 de febrero de 2009, cuya certificación fue elevada a público el día 13 de febrero de 2009 ante el Notario de Bilbao, D. José Antonio Isusi Ezcurdia, con el número 700 de su protocolo.

II. De otra parte, el Ayuntamiento de Berango (en adelante, el "Ayuntamiento").

Se halla representada por D. M^a ISABEL LANDA GAUBEKA, mayor de edad, con DNI número 16035617-V, en su condición de Alcalde.

En adelante, y a los efectos del presente convenio, "Parte" significa la Fundación BiscayTIK o el Ayuntamiento según el sentido de la expresión en cada caso, y "Partes" significa la Fundación BiscayTIK y el Ayuntamiento conjuntamente.

EXPONEN

I. En el marco de las acciones y convenios firmados entre la Fundación BiscayTIK y el Ayuntamiento, tal y como queda acreditado por la firma del Convenio Marco de Adhesión al Proyecto BiscayTIK, se han desarrollado las acciones necesarias que propician el desarrollo de la sociedad de la información en el



zehazkiago, egungo gizartean hain beharrezkoak diren bitarteko elektronikoen bidez herritarrei udal zerbitzu publikoetara sarbidea emateko aukera eskaini da. Herritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak xedatutakoaren arabera, data eta ordu ofiziala zehaztu eta egun baliogabeak adierazi beharko dira.

II. Proiektuaren garapen maila dela eta, Udal bakoitzak zehaztu beharko du elektronikoki bideratutako izapideei dagokienez herritarrekin harremanetan jartzeko eskatzen den erregistroaren data sistema zein izango den, etorkizunean proiektuan eta hitzarmenetan egin litezkeen aldaketa eta aurrerapenei kalterik egin gabe. Honako baldintza hauek kontuan hartu beharko dira:

HITZARMENAK

Lehenengoa.- Herritarrek udaletxeko arretarako ordutegitik kanpo egiten dituzten izapide telematikoen kasuan, izapideen **Erregistroaren Data eta Ordua** hurrengo laneguneko lehenengo ordu balioduna izango da.

Bigarrena.- Erregistro horien **Aurkezpen Data eta Ordua** herritarrak bere eskaera elektronikoa bukatzen duen momentuan ezarriko da.

Hirugarrena.- BiscayTIK Fundazioak udal administrazio-kudeatzailea eginkizun horretarako konfiguratu ahal izateko, udalak jakinarazten du bere herritarren arretarako ordutegia honako hau dela: Astelehenetik Ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Laugarrena.-Oinarria

Akordio hau BiscayTIK Proiektuarekiko Atxikimendurako Hitzarmen Markoaren esparruan dago eta horren Hamaikagarren artikuluan adierazitakoarekin bat dator, hain zuzen ere, Bestelakoak izeneko artikuluko horretako Hirugarren eta Laugarren ataletan zehaztutakoarekin, eta bere garapenerako ezartzen dituen hitzarmenak zintzoki betetzen ditu. Beraz, Hitzarmen Markoan adierazitakoa ez du indargabetzen ezta ezeztatzen, alderdien arteko harremana erregulatzen duten arau multzoetan jarraibide espezifiko soila baita.

ámbito municipal, y en concreto, el acceso de los ciudadanos a los servicios públicos municipales mediante la utilización de los medios electrónicos tan necesarios en la sociedad actual. La ley 11/2007, de 22 de junio de 2007, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, indica que se deberá especificar la fecha y hora oficial y los días declarados como inhábiles.

II. Dado el momento de desarrollo del proyecto, debe determinarse por cada Ayuntamiento el sistema fecha de registro requerido para relacionarse con los ciudadanos en los procedimientos tramitados electrónicamente, sin perjuicio de futuras modificaciones y avances en el proyecto y en los convenios, en base a las siguientes condiciones:

ESTIPULACIONES

Primera.- Para aquellos trámites telemáticos realizados por la ciudadanía fuera del horario de atención al público del ayuntamiento se establece que su **Fecha y Hora de Registro** sea la primera hora hábil del siguiente día laborable.

Segunda.- La **Fecha y Hora de Presentación** de dichos registros coincidirán con el momento en el que el ciudadano finalice su solicitud electrónica.

Tercera.- Para que la Fundación BiscayTIK pueda configurar el gestor administrativo municipal a tal efecto, el ayuntamiento comunica que su horario de atención presencial al ciudadano será de Lunes a Viernes de 9:00 a 14:00h.

Cuarta.-Fundamento

Este acuerdo se suscribe dentro del ámbito del Convenio Marco de Adhesión al Proyecto BiscayTIK y conforme a lo indicado en su artículo Décimoprimer, denominado Miscelánea, en su apartado Tercero y Cuarto, cumpliendo fielmente las estipulaciones marcadas desde el mismo para su desarrollo, por tanto, no desvirtúa lo indicado en el Convenio Marco, ni lo contradice, sirviendo únicamente como instrucción más específica en el conjunto de normas que regulan la relación entre las partes.



Beraien onarpenaren adierazpen bezala, Alderdiak orri bakoitza errubrikatzen dute eta bi (2) aleen behelaldean sinatzen dute, ondore bakarrean BiscayTIK. Proiektuarekiko atxikimendurako hitzarmen markoa garatzen duten hitzarmen bereziak, Erregistro Elektronikoari buruzkoak, goiburuan adierazitako leku eta datan formalizatuz.


Como expresión de su consentimiento, las Partes rubrican cada hoja y firman al pie de los dos (2) ejemplares en que se formaliza, en un solo efecto, las estipulaciones particulares en desarrollo del convenio marco de adhesión al proyecto BiscayTIK, en materia de Registro Electrónico, en el lugar y la fecha indicadas en el encabezamiento.

Fundación BiscayTIK-BiscayTIK Fundazioa



Izp/ Fdo.: Sr. Ibon Oñate Zamalloa jauna

Berangoko Udala / Ayuntamiento de Berango



Izp/ Fdo.: D. M^a Isabel Landa Gaubeka jauna